

KOSTUEN EGITURA

Dirua, garraioa , egonaldiak, aktibitate aseguruak eta ginkanan zehar agertzen diren aktibitateak subkontratatzeko erabiliko dugu gehien bat, baita gure merchandising- a ekoizteko.

Bazkideen eta kontratatuko diren langileen soldata gehi gizarte segurantzaren gastuak, pisu handia izango du enpresaren kostuetan. Langileak eskari- eskaintzaren arabera kontratatuko ditugu. Bartzelonako kontaktuarekin hitz egin genuenean (OkTeam), zera azaldu zigun, batzutan langile gehiago behar zirela eta beste batzutan gutxiago, denboraldiaren arabera.

Diruaren portzentai bat influencers -etara eta sare sozialetara bideratuko da, gaur egun proiektua ezagutarazteko eta hedatzeko modurik eraginkorrenetakoa bat baita.

Honen beste zati bat, maileguak eta lokalaren alokairua ordaintzeko ere erabiliko dugu.

Web orria eta sare sozialen ardura bazkideok izango dugunez, formazioa jasoko dugu.

Amaitzeko, gure enpresak irabazitakoaren %10a, Amesten, ongintza elkartera bideratuta egongo da aniztasun funtzionala eta inklusioa duten gazteen parte-hartzea sustatzea eta erraztea.

Kostuen egitura

- garraioa , egonaldiak, aseguruak , ginkanan zehar agertzen diren aktibitateak eta merchandising-a
- Sare sozialak, influencerrak, mailegua, alokairua eta bazkideentzako formakuntza.

